

BANAKAKO EBALUAZIOA

Lehen Hezkuntzako 3. ikasmaila

2016-2017 ikasturtea

Jarduketan protokoloa

Uztailaren 16ko 60/2014 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumaz ezartzen duenak, 11. artikuluan agintzen duenaren arabera, Lehen Hezkuntzako hirugarren ikasmaila amaitzean ikasle guztiei banakako ebaluazioa egingen diete ikastetxeek. Horren bidez, ahozko eta idatzizko adierazpenean eta ulermenean, kalkuluan eta problemak ebaztean behar diren trebetasunak, ahalmenak eta abileziak zer mailatan menderatzen dituzten egiaztatuko da, hizkuntza komunikazioko gaitasunari eta matematika gaitasunari dagokienez.

273/2016 Ebazpenak, uztailaren 6koak, onesten ditu ikastetxe publikoen antolaketa eta funtzionamendua 2016-2017 ikasturtean arautzeko jarraibideak eta, era berean, ezartzen du Hezkuntza Departamentuak jarraibideak emanen dituela proben aplikazioa eta zuzenketa arautzeko.

Ikasturte honetan, ebaluazio horren barnean egingen diren kanpoko probek ondoko oinarritzko gaitasunak ebaluatuko dituzte:

- Hizkuntza gaitasuna: irakurmena eta idazmena, gaztelaniaz zein euskaraz, ikaslearen hizkuntza ereduaren arabera
- Matematikako gaitasuna: kalkulua, arrazoibidea eta problemen ebazpena
- Ingeleseko hizkuntza gaitasuna

Aurreko ikasturtean bezala, 2016-2017 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 3.eko banakako ebaluazioaren probak ikastetxeen eskura paratuko dira (apirilaren 28tik aurrera) Departamentuaren webgunean (<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/evaluacion-y-calidad>), PDF formatuan zein Word formatuan, eta ikastetxeek autonomia izanen dute horiek aplikatzeko, moldatzeko (handitzeko, egokitzapen metodologikoak egiteko, etab.), egutegia antolatzeko, zuzentzeko, emaitzak aztertzeko, etab. Datuak ez dira sartuko Educa aplikazio informatikoan eta ikasleek ez dute galdera-sorta sozioekonomiko eta kulturala *online* egin behar. Ikastetxeek erabaki horiek hartuko dituzte, aintzat izanik ebaluazio honek prestakuntza eta orientazio izaera duela, eta ikastetxean aurrera eramaten dituzten ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuen barnean txertatuko dute.

Hobekuntza Planaren esparruan, ebaluazio honetan ikasleek lortutako emaitza orokorreari zer tratamendu eman ere erabakiko dute ikastetxeek eta, behar den hausnarketa egin ondoren, hobekuntza ildoak proposatuko dituzte.